

CERMIN Elkarte Mugimenduaren Manifestua

2026ko martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna

“20 urtez eskubideetan aurrera jotzen. 25 urtez berdintasuna eraikitzen.”

Gaur, beste behin ere, desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatook, bai eta ama, senide eta zaintzaileok ere, gure ahotsa altxatu nahi dugu berriro, Emakumearen Nazioarteko Egunaren karira.

Aurten, une bereziki esanguratsuan altxatuko dugu ahotsa. 20 urte bete baitira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa onetsi zenetik. Horrek aldaketa historikoa ekarri zuen, gu eskubideen subjektu osoak garela aitortu baitzuen.

Horrela, 6. artikulua espresuki aitortzen du desgaitasuna dugun emakume eta neskatook diskriminazio mota asko pairatzeko arriskua dugula eta, horrenbestez, Estatuak neurriak hartu behar dituztela gure giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak oso-osorik garatzeko eta ahalduzko.

Aurten, halaber, CERMIN erakundearen 25. urtemuga ospatzen dugu. 25 urtez lan kolektiboan, eragin politikoan eta desgaitasuna duten pertsonen – emakumeen eta neskatoen, bereziki– duintasun, autonomia eta berdintasunaren defentsan tinko.

Urtemugak, ordea, ez dira ospakizun hutserako. Gauzak ebaluatzeko eta aldarrikatzeko baizik.

Izan ere, aurrerapenak aurrerapen, desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatook diskriminazio asko eta intersektionalari aurre egiten jarraitzen dugu: emakume izateagatik eta desgaitasuna izateagatik. Desberdinkeria hori are larriagoa da, beste faktore batzuk gurutzatzen direnean, hala nola adina, desgaitasun mota, landatasuna, migrante izaera, pobrezia egoerak edota instituzionalizazioa.

Oraindik ere tasa handiagoak ditugu langabezia eta pobrezia. Oraindik ere oztopoak topatzen ditugu hezkuntzan, enpleguan, bai eta gizartean eta politikan parte hartzeko ere. Oraindik ere zalantzan jartzen da geure bizitzen gainean erabakitze dugu gaitasuna.

Aurreiritzien ondorioz, oraindik ere hazten dira desgaitasuna duten neskatook espektatiba mugatuaren eraginpean.

Desgaitasuna dugun emakumeok oraindik ere oztopoak topatzen ditugu enplegu duina eskuratzeko, kontziliatzeko eta gure eskubideak oso-osorik erabiltzeko, eskubide sexual eta erreproduktiboak barne.

Oraindik ere arrisku handiagoa dugu indarkeria eta sinesgarritasun falta pairatzeko.

Eta gure ondoan, gure amak eta zaintzaileak daude: laguntzei eusten dieten emakumeak dira beren denbora eta osasuna eskainiz, eta askotan, beren lan eta bizitza proiektuaren bidez. Haien lana ezinbestekoa da, baina sistema publikoek ez dute lan hori behar adina aitortzen, ezta behar beste babesten ere.

Konbentzioak, batez ere, gauza bat erakutsi digu 20 urte honetan, hots, eskubideak, adierazteaz gain, bermatu ere egin behar direla.

Hori dela eta, gaur honakoa EXIJITZEN DUGU:

- Politika publikoak egitea, genero-ikuspegia eta desgaitasuna zeharka txertatzeko.
- Hezkuntza inklusiboa, eta behar besteko laguntza, neskatorik atzean ez gelditzeko.
- Enplegu duina eta berariazko neurriak, laneko diskriminazio eta prekarietate bikoitzari aurre egiteko.
- Laguntza-sistema publikoak, bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko.
- Zaintzak aitortzea eta birbanatzea, erantzunkidetasun sozial eta komunitarioan oinarrituta.
- Irisgarritasun unibertsala eta babes eraginkorra indarkeria mota guztien aurrean.

Duela 25 urte, CERMIN sortu zen, desgaitasuna duen inor ere atzean ez gelditzeko.

Gaur, berriz ere esan nahi dugu ez dela benetako berdintasunik egonen, desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatok bazterturik eta ikusezin bihurturik jarraitzen dugun bitartean.

Ez da justizia sozialik egonen, gure bizitzei buruz erabaki ezin dugun bitartean.

Ez da erabateko demokraziarik egonen, gu aintzat hartzen ez bagaituzte.

Lortutakoa ospatzen dugu. Baina ez gara konformatzen.

Gure eskubideak ez baitira sinbolikoak. Giza eskubideak dira. Eta giza eskubideak bete egiten dira.

Gaur, duela 25 urte bezala, antolatuta jarraitzen dugu.

Gaur, duela 20 urte bezala, gure eskubideak defendatzen jarraitzen dugu.

Gaur, martxoaren 8 bakoitzean bezala, zapaltzen gaituen sistema patriarkal eta kapazitista baten aurka borrokatzen jarraitzen dugu.

Hemen gaude, gu ere kontuan hartu behar gaituztelako.

Bagara. Eusten diogu. Bagoaz aurrera.